

## **Bortziriako Euskara Mankomunitateren eta Bortziriako Euskaltegiaren arteko lankidetzaren hitzarmena**

### **BILDURIK:**

Alde batetik Leire Mitxelena Gamio (NAN 44.631.990-F), Bortziriako Euskara Mankomunitateko (IFZ: P3126685A) lehendakaria denez, erakunde horren izenean, Batzorde Erabakitzaileak 2019ko azaroaren 15ean hartutako erabakiari jarraituz eta indarrean dagoen legeak emandako ahalmenaren arabera.

Bertze aldetik, Beñardo Goietxe Lournagarai (NAN 72.671.913-D), Bortziriako Euskaltegia Kultur Elkarteko (IFK: G31240005) lehendakaria denez, erakunde horren izenean, elkarteak 2015eko apirilaren 17ko batzarrean hartutako erabakiari jarraituz eta bere estatutuen 18. artikuluan dioenari so, lehendakariak ordezkatzeko baitu elkartearen edozein instituzio ofizialen aurrean.

### **AURREKARIAK:**

**Lehendabizikoa.** Bortziriako Euskara Mankomunitateak (hemendik aitzinera "mankomunitatea") bertan euskara normalizatzea du helburu.

**Bigarrena.** Helduen euskalduntze-alfabetatzea euskararen normalizazioan lehentasunezkoa da. Ildo horretatik, mankomunitateak bere sorreratik diruz lagundu du Bortziriako IKA Euskaltegia (hemendik aitzinera "euskaltegia"). Era berean, helduen euskalduntze-alfabetatzea sustatzeko kanpainak abian jarri ditu. Are gehiago, mankomunitateak, euskaltegiarekin elkarlanean, Bortziritan erroldatuak dauden herritarrek euskara doan ikasteko programa abian jarri zuen 2016an, horretarako sorturiko beka sistemaren bidez.

**Hirugarrena.** Mankomunitatearen eta euskaltegiaren arteko elkarlana ezinbertzekoa da, eskualdean euskararen egoera normalizatuko bada. Elkarlan hori are estuagoa da euskara doan ikasteko programa abian jarri zenetik.

**Laugarrena.** Mankomunitatearen iritziz euskaltegiaren jarduna eskualdearentzat onuragarria da eta, ondorioz, beharrezkoa eta komenigarria iruditzen zaio dirulaguntza ematea. Mankomunitateak ez du dirulaguntza deialdi publikorik egin ez dagoelako aipatutako helburuak betetzen dituen bertze onuradunik.

**Bostgarrena.** Badago hitzarmen honek eragin ditzakeen gastuak ordaintzeko adina kreditu mankomunitateak 2025. urterako onartutako aurrekontuan (1 3350 4820001 partida, 33.596,32 euro).

**Seigarrena.** Alor honetarako aplikatu beharreko legedia honakoa da: Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Legea, Toki Araubideko Oinarriak arautzen

dituen apirilaren 2ko 7/1995 Legea, diru laguntzei buruzko irailaren 17ko 38/2003 Legea eta Dirulaguntzei buruzko azaroaren 9ko 11/2005 Foru Legea.

Horiek horrela, bi aldeek beren arteko harremana arautzeko asmoarekin hitzarmen hau egin dute.

## **HITZARTU DUTE:**

**1. Hitzarmenaren xedea.** Hitzarmen honen xedea da mankomunitatea osatzen duten udalerrietan helduen euskalduntze-alfabetatzea bultzatzea. Horretarako, helduen matrikulazioa handitu, asistentzia areagotu eta emaitzak hobetzeko lanak sustatuko dituzte bi aldeek.

**2. Lankidetzan xede izanen diren jarduerak.** Mankomunitatearen eta euskaltegiaren arteko lankidetzan honako jarduera hauetara hedatzen da:

- a) Euskaltegiari dirulaguntza ematea.
- b) Helduen euskalduntze-alfabetatzea bultzatzea.
- c) Bi aldeen artean hitzartzen ahal diren helduen euskalduntze-alfabetatzearekin eta, oro har, euskararen normalizazioarekin lotura duten bertze gainerakoak.

**3. Euskaltegiaren betebeharrak.** Dirulaguntza hartu ahal izateko, euskaltegiak honako baldintza hauek bete beharko ditu:

- Kalitatezko irakaskuntza eskaintzea.
- Osatuko den talde bakoitzean bortz ikasle edo gehiago izatea; gainerakoan mankomunitateak dirulaguntza berraztertuko du.
- Talde bakoitzean mankomunitateko udalerrietan erroldatutako ikasleen kopurua gutxienez % 80koa izatea.
- Irakasleek gutxienez C1 euskara maila egiaztatua izatea eta glotodidaktika ikastaroa egina izatea.
- Euskaltegiaren komunikazio ekintzetan eta horretarako erabiltzen dituen euskarrietan (paperezkoak nahiz digitalak) mankomunitateak diruz laguntzen dituela adieraztea, horretarako mankomunitatearen irudi korporatibo ofiziala erabiliz.
- Helduen euskalduntze-alfabetatzea ekonomikoki bideragarria izan dadin neurriak hartzea eta ahaleginak egitea tokian tokiko irakasleak izateko.
- Izen eman duten ikasle guztiek euskara eskolak izan ditzaten bermatzea.
- Mankomunitateari frogatzea dirulaguntza emateko ezarri diren baldintzak eta eskakizunak bete direla, eta baita jarduera egin eta helburua bete dela ere.
- Diruz lagundutako jarduera egiteko bertzelako dirulaguntzarik, sarrerarik edo baliabiderik lortuz gero, mankomunitateari horren berri ematea.
- Euskaltegiak eskura izanen ditu: kontabilitate liburuak, erregistro eguneratuak, eta onuradunari kasu bakoitzean aplikatu dakioken merkataritza legedian eskatutako terminoetan ikuskatutako bertzelako agiriak, baita dirulaguntzak arautzen dituen

oinarrietan eskatutako kontabilitate egoera eta erregistro zehatzak ere. Honela, egiaztapen eta kontrol ahalmenak era egokian gauzatzea bermatzen da.

- Euskaltegiak hartu dituen dirulaguntzak zertan erabili dituen egiaztatzen duten dokumentuak gordetzea, dokumentu elektronikoak barne, egiaztapen eta kontrol jardueretarako gai izan daitezkeen bitartean behintzat.
- Dirulaguntzak arautzen dituen irailaren 17ko 38/2003 Legearen 37. artikuluan aurreikusitako baldintzaren bat gertatuz gero dirua itzuli egin beharko du.
- Euskaltegiak mankomunitatearen kontrol organoei dagozkien kontrol jarduketak lagundu behar ditu, baita eskumena duten organoek finantzazioa egiaztatzeko eta kontrolatzeko egin litzaketen bertzelako jarduketak ere, eta, bereziki, egoitzarako eta aztertu nahiz kontratatu beharreko agiriatarako irizpidea.

**4. Dirulaguntzaren zenbatekoa.** Bortziriako Euskara Mankomunitateak 33.596,32 euroko dirulaguntza emanen dio Bortziriako IKA Euskaltegiari. Horretarako mankomunitateko aurrekontuan entitatearen izenarekin izendatutako partidako kreditua erabiliko du. Dirulaguntza horien barne honako gastu hauek aintzat hartzen dira: langileen soldatak, langileen joan-etorri gastuak, gizarte aseguruak, eskolak prestatzeko orduak, irakaslearen prestakuntza, materiala eta egoitzaren mantenua.

Mankomunitatearen dirulaguntza, bera bakarrik edo euskaltegiak jarduera bererako har litzakeen bertze laguntza, ekarpen edo diru sarrera publiko nahiz pribatuekin batera, ezin izanen da, inolaz ere, diruz lagundutako jardueraren kostua baino handiagoa izan. Onartutako kopuruak aipatutako gastuen kopurua gaindituko balu, bi kopuruak berdindu arteko murrizketa ezarriko zaio. Baldintza hau bete dela adierazteko euskaltegiak urteko gastu agiriekin batera ziurtagiri bat aurkeztu beharko du, adieraziz bertze entitate publiko edo pribatuetatik jasotako dirulaguntzekin, mankomunitatearena barne, aurkeztutako gastuak ez direla gainditu.

**5. Dirulaguntzaren ordainketa.** Mankomunitateak dirulaguntza hiru zatitan ordainduko du:

- Lehen zatia, 11.000,00 euroko dirulaguntza, hitzarmena sinatu ondotik.
- Bigarren zatia, 11.000,00 euroko dirulaguntza, 6.1) puntuan zehazten den dokumentazioa aurkeztu eta lehendakariak diru laguntza ordaintzea ebatzi ondotik ordainduko da.
- Azken zatia, 11.596,32 euroko dirulaguntza, 6.2) puntuan zehazten den dokumentazioa aurkeztu ondotik. Dokumentazio horren barne, euskaltegiak mankomunitateari adierazi behar dio zenbatekoa izan den Nafarroako Gobernuaren dirulaguntza 2025ean.

**6. Aurkeztu beharreko dokumentazioa eta epeak.** Euskaltegiak dokumentazio hau aurkeztu beharko du mankomunitatean, zehazten diren epe hauen barrenean:

- 1) Ekainaren 30eko 23:59 baino lehen, bukatutako ikasturteari buruzko balantze didaktikoa jasoko duen txostena, eta urteko lehen sei hilabeteari dagozkion dokumentu hauek:

- 2024ko azaroaren 1az geroztik matrikulatutako ikasleen zerrenda eta datuak (izen-abizenak, helbidea, maila eta ikastaro mota), eta matrikulak ordaindu izanaren agiriak.
- Matrikulazio berriek taldeetan eragindako aldaketak: ikasle berriak zein taldeetan txertatu diren, edota talde berriak sortu den.
- Talde bakoitzak bukatzean den ikasturte osoan emandako orduak.
- Talde bakoitzaren bukatzean den ikasturte osoko asistentzia fitxak.

2) Urriaren 31ko 23:59 baino lehen, ikasturte berriko euskalduntze-alfabetatzeko matrikulazioari buruzko datu hauek:

- Talde bakoitzaren maila edo urratsa, ordutegiak, tokiak, eta horietako bakoitzean dauden ikasleen zerrendak eta datuak (izen-abizenak, helbidea, maila eta ikastaro mota), eta matrikulak ordaindu izanaren agiriak.
- Talde bakoitzak urritik abendura bitartean izanen dituen eskola orduen estimazioa.
- Irakasleei buruzko datuak.
- Ikasturte arruntetik kanpo (uztailean, abuztuan edota irailean) deialdi honekin bat datorren ikastarorik eskaini izanez gero, taldeei buruzko datuak (ikasleen datuak, matrikulen ordainagiriak, ikastaroei buruzko datuak, irakasleei buruzko datuak) eta asistentzia fitxak.
- Urrira arteko memoria ekonomikoa, sarrerak eta gastuak xeheki zehaztuz:
  - i. Sarrerei dagokienez, bertzelako erakunde publikoetan eta bertze autonomia erkidego batzuetako administrazioetan eskatu edo harturiko laguntza guztiak espresuki adieraziko dira, bai eta partikularrek emandakoak edo enpresa pribatuak bertzelako diru sarrerak (babesak eta publizitatea, errate baterako). Bertzalde, ikasleek ordaindutako matrikuletatik sorturiko sarrerak ere zehaztuko ditu, eta matrikula agirien fotokopiak ere aurkeztuko ditu.
  - ii. Gastuei dagokienez, ongi zehaztu behar dira langileak kontratatzeetik sorturiko gastuak, ustiapen gastu orokorrak eta funtzionamendu eta banaketa gastuak zein eta zenbatekoak diren. Gutxienez mankomunitateak eman beharreko dirulaguntza adinako gastuak justifikatu beharko dira.
- Erantzukizunpeko adierazpena, I. eranskineko eredia behar bezala beteta.

Aurkezten diren dokumentu guztiak originalak edo fotokopia konpultsatuak izan behar dira. Euskaltegiak aurkeztutako dokumentazioan okerrik dagoela edo agiriren bat falta dela ikusten bada, hamar egun emanen zaizkio akatsak zuzentzeko edo agiriak osatzeko. Epe hori igaro eta akatsa zuzendu edo agiriak osatu ez badira, eskatzaileak eskaeran atzera egin duela ulertuko da.

**7. Dokumentazioa aurkezteko modua.** Egin beharreko tramiteak eta aurkeztu beharreko dokumentuak nahitaz telematika bidez aurkeztuko dira, honako helbide honetan: Egin beharreko tramiteak eta aurkeztu beharreko dokumentuak nahitaz telematika bidez aurkeztuko

dira, honako helbide honetan:  
<https://egoitzaelektronikoa.bortziriak.eus/carpetaciudadana/tramite.aspx?idtramite=1521>

**8. Hizkuntza irizpideak.** Onuradunaren eta mankomunitatearen arteko harremana, ahozkoa nahiz idatzizkoa, euskaraz izanen da. Halaber, onuradunak herritarrekiko ahozko nahiz idatzizko harremanean euskararen erabiliko du beti, bere ohiko jardueran eta mota guzietako komunikazioetan, eta euskararen kalitatea bermatuko du ahozko eta idatzizko ekintza guzietan.

**9. Berdintasun irizpideak.** Diruz lagundutako proiektu eta/edo jardueraren ondorioz sortzen den dokumentazio, publizitate, irudi edo material guzietan:

- Hizkuntza ez-sexista erabiliko da.
- Emakumeak diskriminatzen dituzten irudiak edo estereotipo sexistak saihestuko dira.
- Berdintasunaren, presentzia orekatuaren, aniztasunaren, erantzukidetasunaren eta genero rol eta identitate aniztasunaren balioak dituzten irudiak sustatuko dira.

**10. Datuen babesa.** Eskatzaileen datuak horiek babesteari buruzko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoan ezarritakoaren arabera tratatuko dira.

**11. Hitzarmenaren indarraldia.** Hitzarmen honen iraupena urtebetekoa da. Hala ere, bi aldeak ados egonez gero, mankomunitatearen aurrekontu propioak horretarako aukera ematen dion neurrian eta betiere dagokion diru izendapena aurreikusi bada urteko aurrekontuan, hitzarmenaren iraupena urtero luzatu ahal izanen da. Betiere gehienez lau urteko iraupena izanen du, luzapenak barne.

**12. Hitzarmenaren interpretazioa.** Hitzarmen honen interpretazioa mankomunitateari dagokio, eta euskaltegiak mankomunitatearen erabakiak onartu beharko ditu.

Balizko auzigaiak bide administratiboan konponduko dira, indarrean dauden legezko xedapenekin bat.

Hitzartutakoa behar bezala jasoa gera dadin, eta beteko dela azaltzeko, aldeek honako agiri hau sinatu dute orrialde guztietan.

Leire Mitxelena Gamio  
Bortziriako Euskara Mankomunitateko  
lehendakaria

Beñardo Goietxe Lournagarai  
Bortziriako Euskaltegia Kultur Elkarteko  
lehendakaria

## I. ERANSKINA

Izen-abizenak:

NAN:

Ordezkatzen duen erakundea eta kargua:

### NIRE ERANTZUKIZUNPEAN ADIERAZTEN DUT:

1. Bortziriako Euskara Mankomunitatearekin (data)n sinaturiko hitzarmenean xedatutako baldintzak betetzen ditudala.
2. Hemen adierazitako datuak eta aurkeztutako dokumentazioa egiazkoak direla.
3. Dirulaguntza Orokorrei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 13. artikulua 2. eta 3. apartatuen eta 34.5 artikuluan xedaturikoaren arabera ez nagoela sartuta dirulaguntza publikoak itzularazteko edo zigortzeko inongo prozeduratan.
4. Eskabide honekin batera baimena ematen diodala mankomunitateari behar den informazio guztia biltzeko, hemen xedatutakoa eta aurkeztutakoa egiaztatzeko. Hori guztia Datu Pertsonalak Babestekoa eta Eskubide Digitalak Bermatzeko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoan adierazitakoaren arabera.
5. Helburu bererako bertze erakunde publiko nahiz pribaturi dirulaguntza/aportazio eskaerari dagokionez (markatu dagokiona):
  - Ez diodala bertzelako erakunde publiko nahiz pribaturi dirulaguntza/aportazio eskaerarik egin.
  - Bertze erakunde publiko nahiz pribaturi edo pertsona fisikori dirulaguntza/aportazio eskaera hau egin diodala edo jaso dudala:

ERAKUNDEA/PERTSONA	KONTZEPTUA (Adibidez: , jendeen aportazioa, boletoen salmenta, ostatuen aportazioa, etab.)	ZENBATEKOA	EGOERA (Ebatzi gabea, ebatzita baina kobratu gabe edo kobratuta)

(Data eta sinadura)